

Zaintza lanak aitortzea eta banatzea beharrezkoa da soldata-arrakalarekin amaitzeko



Otsailaren 22a da soldata-arrakalaren aurkako eguna. Aurten, zaintza lanak aitortzea eta banatzea eskatuko dugu, beharrezkoa baita soldata-arrakalarekin amaitzeko. Gainera, mobilizazioa egingo dugu Iruñean, 10:00etan, Merindadeen plazan.

Soldata-arrakala sexuaren arabeko enplegu eta lanaren banaketa desorekatuaren ondorio da. Emakumeok* egiten dugun lana debaluatuta dago eta soldata-arrakala egiturazkoa da. Iturri ofizialek emandako datu orokorrek ez digute errealitate gordina ikusten uzten. Gaur egun, Euskal Herrian ez da soldata berdina kobratzen balio bereko lana egin arren; sexuaren arabera desberdina da.

Emakumeok* egiten ditugun lanak zaintzari loturikoak dira hein handi batean, eta hor dago gakoa: ez zaio balio bera ematen pertsonak zaintzeari edo gurpilak ekoizteari.

Emakumeoi* ematen diguten zaintzaile rola enpleguaren eremutik harago doa: zaintzari lotutako lanpostuak guztiz feminizatuak daude eta enplegutik kanpoko zaintza lanak ere emakumeei* egozten dizkigute. Horrek prekaritatean eta soldata arrakalan eragin zuzena dauka: zaintza ardurek enplegu prekarioagoak (lanaldi partzialak...) onartu behar izatera garamatza; adibidez, ostalaritzan edo jangeletan; eta baita zaintza baimenak edo zaintza lanetarako jardunaldi murrizketak hartzera ere. Horrek gero penalizazioak dakartza emakumeentzat*.

Zaintza lanek ez daukate inolako aitortza ekonomikorik eta sozialik, eta ez dugu Zaintza Sistema Publiko Komunitariorik. Emakumeon* lanari esker sostengatzen dira, eta, bitartean, gizonak ez zaintzeko pribilegioari eusten diote.

Patronalak zein instituzioek honetan duten erantzukizuna seinalatu behar dugu: instituzio publikoak generoagatiko soldata-arrakalaren erantzule zuzenak dira; zerbitzu publikoak pribatizatzen dituzten bakoitzean zaintza lanekin negoziatzea gaita sustatzen dute. Erantzukidetasun politikak bultzatzeari uko egiten

ari dira, gainera.

Horren aurrean, LABetik honakoa aldarrikatzen dugu:

- Zaintza lanak era justu batean banatu eta baloratzea. Hori horrela ez den bitartean, soldata arrakala mantendu egingo da.
- Zaintza sistema publiko komunitarioa garatzea.
- Sexuaren araberako lan banaketarekin amaitzea eta lan eta enplegu guztien birbalorizazio bat egitea. Horretarako, bizitzaren sostengarritasun faktorea aplikatuko genuke.
- Hitzarmen kolektiboetan lanpostuen balorazio feministak sartzea.
- Zaintza eta bizitzaren sostengurako beharrezkoak diren lan guztiak emakumeon* gain jarri dituzte eta doakoak dira; sistema kapitalistak eta jendarte osoak atera dio horri probetxua. Horren aurrean, zor patriarkala deitu diogun zuzenketa faktorea aplikatzea proposatzen dugu.
- Lanaldia murriztea, soldata txikitu gabe: zaintzeko denborak bermatu.
- Zaintza sektoreko lan baldintzak hobetzea.